

# LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



## Bigarren Hiruhilekoa 2024



## EDUKIA

Testuinguru ekonomikoa.....	4
Lanbiden erregistratutako langabezia.....	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzari.....	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8

*Txosten honek, **2024ko bigarren hiruhilekoan**, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez.*


*Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzari eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).*

## Testuinguru ekonomikoa

### Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) urtez urteko hazkundeak %1,8ko hazkundea erakusten du bigarren hiruhilekoan, 2024 urte osorako aurreikusten den hazkundea %1,9koa izanik


Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,8 hazi da bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokionez, 2024an EAEko BPG-a %1,9ra helduko da, eta 2025ean hazkunde-tasa %2,1ean kokatuko da.

“Koiuntura DI-DA batean 2024ko iraila” txostenaren arabera, EAEko ekonomiaren termometroak 99,3ko balioa lortu zuen ekainean; horrela, hazkunde sendoko eremurantz hurbiltzen jarraitu zuen. Halaber iazko martxotik eskuratu duen baliorik altuena lortu du. Eskariaren ikuspegitik, jardueraren dinamismoari egingako ekarpenik handiena kontsumo pribatuaren hazkundearen eskutik etorri da eta, ordainetan, kanpoko saldoaren ekarpena galdu da inportazioen hazkundearen ondorioz. Industriaren egoerak ahuleziak markatuta jarraitzen du, baina aurreikuspenak hobetzen ari dira, eta enpleguaren hazkundeak zerbitzuen sektorea bultzatu du.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, “Koiuntura DI-DA batean 2024ko iraila” txostena.

Espainiako ekonomiari dagokionez, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2023 urtean, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, %2,5koa izan da. Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena %2,4koa da 2024 urterako eta 2025 urterako %2,1koa. Euroguneko ekonomiari dagokionez, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2023 urtean, Eurostat-en arabera, %0,4koa izan da. Consensus Forecast-en arabera, 2024rako BPG-aren urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena %0,5koa da eta 2025 urterako %1,3koa.




Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, “Koiuntura DI-DA batean 2024ko iraila” txostena.

## Lanbiden erregistratutako langabezia

### Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera %4,6 jaitsi da: -2.580 emakume eta -2524 gizon

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulego-etan erregistratutako **langabe kopurua** %4,6 jaitsi da 2024ko bigarren hiruhilekoan (-5.104 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 106.367 pertsonakoa izan da, urte arteko igoera %0,9koa izanik.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Sexuari** dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 2.580 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean eta -2.524 pertsonatan gizonzkoen artean. Emakumezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 61.673 pertsonatan kokatu da eta 44.694 pertsonatan gizonzkoen kasuan.

**Adinari** dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-1.431); ondoren, 35-44 urte bitartean (-1.131); 45-54 urte bitartean (-1.060); 16-24 urte bitartean (-928) eta 55-64 urte bitartean (-554).

**Lurralde Historikoei** dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban %5,1eko jaitsiera eman da, Gipuzkoan -%5,0 eta Bizkaian -%4,2.

4. Grafikoa. Lanbiden erregistratutako langabeziaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera (2024 H2 vs 2024 H1; %)



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Jatorriari** dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua %4,4 jaitsi da eta bertako langabetu kopurua -%4,6. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 19.859 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 86.508 pertsonatan.


**Ikasketa-mailaren** arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena izan duen taldea Batxilergo ikasketak dituztenena izan da (-%6,9), jarraian hurrengo ikasketak dituztenen taldeak egonik: Unibertsitate ikasketak (-%5,3), Lanbide Heziketako ikasketak (-%4,7) eta Oinarrizko ikasketak (-%4,1).

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruaren igoera handiena izan duen sektoreak hurrengoak izan dira: Hezkuntza (+198); eta Administrazio Publikoa eta defentsa. Derrigorrezko Gizarte Segurantzak (+156). Langabetu kopurua jaitsi den jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: Enpleguarekin lotutako jarduerak (-897); Txikizkako merkataritza (-677); egoitza-establezimenduetako laguntza (-523); eta eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza-jarduerak (-411).

## Afiliazioa Gizarte Segurantzian


### Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.019.773 pertsonatan kokatu da, aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gehiago (+7.645 pertsona)

EAEEn 2024ko bigarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.019.773 pertsonatan kokatu da: aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gehiago (+7.645 pertsona) eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino +%1,7 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

**Sexuari** dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %52,0 gizonezkoak dira eta %48,0 emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gutxiago).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

**Lurralde Historikoei** dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,1); jarraian Gipuzkoan (%33,4) eta Araban (%16,5). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 3.109 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; Gipuzkoan +2.815 eta Araban +1.721.


**Jarduera Ekonomikoen atalei** dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, afiliatu gehien izan dituzten jarduerak atalak hurrengoak izan dira: *Manufaktura industria* (%17,3), *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa* (%13,4); eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%11,3). 2024ko bigarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan jaitsiera jasan duten jarduerak atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: *Hezkuntza* (-2.938) eta *Ostalaritza* (-1.392). Beste aldetik, igoera izan duten jarduerak ondorengoak dira: *Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak* (+2.297); *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa* (+1.231) eta *Administrazio jarduerak* (+1.127).

**Jatorriari** dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %4,1 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua 96.507 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %9,5ekoa da, afiliatu autoktonoena %90,5ekoa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %4,6 igo da eta emakumezkoen afiliazioa +%3,5. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa Araban %6,7 igo da, Gipuzkoan +%3,7 eta Bizkaian +%3,5.

## Kontratutako pertsonak eta kontratuak

### Bigarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %10,0 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 187.789koa izan da

2024ko bigarren hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **persona kopurua** guztira 107.599koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %10,0 gehiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean %13,4ko igoera izan da; emakumezkoen artean +%6,6koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Ikasketa-mailaren** arabera, kontratatutako pertsonen %42,2k Derrigorrezko ikasketak ditu, %23,3k Batxilergo ikasketak, %17,8k Lanbide Heziketako ikasketak eta %16,3k Unibertsitateko ikasketak.

**Adinari** dagokionez, 2024ko bigarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 24 urtetik beherako pertsona taldea nabarmendu da, %28,3ko pisuarekin; 25-34 urte bitarteko taldeak jarraitzen dio (%25,8). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatutako pertsona kopurua talde guztietan igo da, 24 urtetik beherako taldea nabarmenduz (+%41,5).

**Nazionalitateari** dagokionez, kontratatutako pertsonen %79,3a bertakoak dira eta %20,7k atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gutxiago). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%53,6), Europar erkidegokoak eta ez erkidegokoak (%14,,3) eta Afrika iparraldekoak (%13,7).

Bigarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari** dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 187.789 kontratu erregistratu dira (kontratutako pertsonak baino 1,7 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %9,7 igo da sinatutako kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Lan-kontratu motaren** arabera, joera berdina jarraitzen du: sinatutako kontratuen %22,9 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2,2 puntu gutxiago) eta %77,1 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %36,1 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago).

**Lurralde Historikoei** dagokionez, balore erlatiboetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hiru lurraldeetan eman dira igoerak: Araba (+%13,0), Gipuzkoa (+%11,8) eta Bizkaia (+%7,0). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%48,7; 91.399); jarraian Gipuzkoa (%31,0; 58.265) eta Araba (%20,3; 38.125).

**Jarduera Ekonomikoei** dagokionez, kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: *Osalaritza* (%15,5), *Manufaktura industria* (%14,0) eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%12,2). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea *Manufaktura industria* da (%20,9) eta emakumezkoen artean *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%19,2).

## Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

### Langabezia-tasa %7,5koa izan da eta okupazio-tasa %52,4koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **okupazio-tasa**<sup>i</sup> %52,4koa izan da (%56,8 gizonezkoen kasuan eta %48,3 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 992.600ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 11.700 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 515.800ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,7 gehiago) eta emakumezkoen kasuan, landunen kopurua 476.800 pertsonatan kokatu da (aurreko hiruhilekoan baino %1,8 gehiago).

**Adinari** dagokionez, okupazio-tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%80,9), 391.200 landun. Bestalde, okupazio-tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%29,7), 59.900 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoena izan da (+%9,1); jarraian, 25-44 urte bitartekoena taldea (+%1,0) eta 45 urte edo gehiagokoena taldea (+%0,5).

**Lurralde Historikoei** dagokienez, Gipuzkoa izan da okupazio-tasarik handiena izan duena (%54,1), jarraian Araba (%53,5) eta Bizkaia (%51,0). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hiru lurraldeetan eman dira igoerak: Bizkaian eta Gipuzkoan +%1,3; Araban +%0,8.

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, *Zerbitzuen sektorea* izan da okupatu gehien izan duena (%73,4). Ondoren, *Industria sektorea* (%20,1), *Eraikuntza sektorea* (%5,5) eta *Lehen sektorea* (%1,0).

**Kontratu motari** dagokionez, soldatapekoen %79,7k kontratu mugagabe-finkoak izan dituzte EAEn eta %19,6k aldi baterako kontratuak. **Lanaldi motari** dagokionez, soldatapekoen %81,5ek lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %18,3k lanaldi partzialekoak.

Bigarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia-tasa** %7,5era jaitsi da (%7,3 gizonezkoen artean eta %7,6 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 80.100 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 4.500 pertsona gutxiago (gizonezkoen kasuan %4,9 jaitsi da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan -%5,7).

**Adinari** dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%6,2); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%8,2) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%13,6). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua jaitsi egin da adin talde guztietan: 25-44 urte bitartekoenean -%5,7; 16-24 urte bitartekoenean -%5,1 eta 45 urte edo gehiagokoenean -%4,8.

**Lurralde Historikoei** dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%5,6), jarraian Araban (%7,6) eta Bizkaian (%8,6). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan jaitsierarik handiena Gipuzkoan izan da (-%11,3); jarraian Bizkaian (-%5,0) eta Araban (-%1,5).

**Jatorriari** dagokionez, langabetuen %72,3 bertakoak dira; atzeritarrak, beraz, %27,7.

<sup>i</sup> Eustatek erabiltzen duen okupazio-tasaren definizioa Eurostaten eta INEren enplegu-tasaren baliokidea da.